

## TXEKEO TEKNOLOGIKOAK PROGRAMA 2018

Helburua (2. art.)	Enpresek berrikuntzaren arloan lehen urratsak egin ditzaten sustatzea, kanpoko Agente Teknologiko baten laguntzarekin.
Erakunde Onuradunak (3. art.)	<p>Bizkaiko enpresak, euren jarduera nagusia <b>Industria, Garraio, Eraikuntza, Industriadari lotutako zerbitzuak, Turismo eta handizkako Merkataritza</b> sektoretan kokatzen bada (dekretuaren I. eranskineko epigrafeen arabera), eta honako baldintzok betetzen badituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Bizkaian</b> izatea egoitza soziala, zerga-egoitza eta, gutxienez, ekoizpen-zentro bat.</li> <li>• Plantillan <b>5-100 pertsona</b> izatea</li> <li>• Muga hauetako bat, gutxienez, ez gainditzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Urteko negozio-kopurua: 20.000.000 €.</li> <li>- Balantze orokorra: 20.000.000 €.</li> </ul> </li> <li>• Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak egunean izatea.</li> <li>• Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana.</li> </ul>
Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea (4. art.)	<p>Enpresa txikien lehiakortasuna sustatzeko <b>Txekeo Teknologikoak</b> egiteko emango dira diru-laguntzak. Honako hau jotzen da txekeo teknologikotzat: Eragile Teknologiko batek aholku ematea enpresak bere produktu edo ekoizpen-prozesuren batean detektatutako arazo jakin bati buruz. Eragile horrek konponbiderik egokiena ezarriko du, edo, bestela, funtsezko informazioa eman, konponbiderik aproposenari heltzeko. Teknologikotzat hartuko da aholkularitzaren xedea eskatzaileak 4.0 Industriadarantz zer urrats eman ditzakeen bada.</p> <p>Laguntzak emateko, hauek jotzen dira <b>Eragile Teknologikotzat</b>: ingeniariak (JESN: 7112, 7120, 7490), eta diseinu industrialeko enpresak eta erakundeak (JESN: 7410), lanbide-heziketako zentroak eta zentro teknologikoak.</p>
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak (5. art.)	<p><b>Diruz laguntzeko gastutzat</b> joko dira diru-laguntzari loturiko txekeoarekin zerikusitu zuzena duten kanpo-gastuak, baldin eta agente teknologikoa den entitate batek eginak badira.</p> <p><b>Diru-laguntzarik jasoko EZ duten gastuak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zergak eta tasak; ezta BEZa ere.</li> <li>• Deskontuak.</li> <li>• Enpresaren barneko pertsonal-gastuak.</li> <li>• Ekipamendua erosteko eginiko ibilgetuko inbertsioak.</li> <li>• Gastu orokor osagarriak; adibidez, administrazio-gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...).</li> <li>• Bidaia-, janari- eta mantenu-gastuak.</li> <li>• Eskatzailearen eta erakunde hornitzailearen artean lotura bat dagoela erakusten duten gastuak.</li> <li>• Diru-laguntzaren xedearrekin argi eta garbi identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdi bakoitzerako epearen barruan egiten ez direnak.</li> </ul>
Diru-laguntzen zenbatekoa (6. art.)	<p><b>Txekeo teknologikoaren % 80</b> besteko diru-laguntza emango da.</p> <p>Erakunde bakoitzeko <b>10.000 euro</b> emango da <b>gehienez</b>.</p>
Araudia eta diru-laguntzak emateko araubidea (18. art.)	<p>50/2018 Foru Dekretua, apirilaren 10ekoa (BAO 70zk. 2018ko apirilaren 12koa).</p> <p>Norgehiagokaririk gabeko prozedura bidez emango dira diru-laguntzak.</p>
Epeak (7. eta 8. art.)	<p><b>Txekeoak egiteko eta fakturatzeko epea</b> 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31arte izango da. 2019ko urtarrilaren 31 baino lehen ordaindu behar dira (egun hori barne).</p> <p><b>Eskabideak aurkezteko epea</b> 2018ko apirilaren 16tik hasita irailaren 28ko 13:30era bitartean. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtualean (<a href="http://www.bizkaia.eus/sustapena-OficinaVirtual">www.bizkaia.eus/sustapena-OficinaVirtual</a>). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea; ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.</p>
Eskabide-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa (10. art.)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontratuen, eskaintzen, proforma fakturen eta/edo behin betiko fakturen kopia, aurreikusitako edo exekutututako gastuaren zenbatekoa egiaztatzeko modua izateko.</li> <li>- Jada fakturatuta eta ordainduta dauden gastuei dagokienez, fakturak ordaindu izanaren bankuko frogagiriak eta emaitzen txostena.</li> <li>- Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira, hartzekodunaren fitxa.</li> </ul>